

EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2020

IZEN-EMATEAREN OINARRIAK

ZER DA?

EuskarAbentura Espedizioa 2020, proiektu honen hirugarren edizioa izango da. Ekimena 120 gaztek osatutako espedizioa da 2020ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko du.

BALDINTZAK

EuskarAbentura Espedizioa 2020 ekintzan parte hartzeko hurrengo baldintzak bete behar dira:

- 2003 edo 2004 urteetan jaioa izan
- Euskaraz jakin

Gure helburua mundu mailako gazte euskaldunen sare bat osatzea da, beraz 7 euskal lurraldeetatik datozen gazteez aparte, hortik kanpoko parte-hartzaileak ere bilatzen ditugu!

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO

Hautagaitzak www.euskarabentura.eus webgunean aurkituko duzuen formularioan gaztearen eta tutore/gurasoen datuak bete eta bi dokumentu bidali beharko dira:

1. MOTIBAZIO GUTUN BAT

450-500 hitzetan kontatu EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

2. PROIEKTU BAT (*Kontuz!* Lan mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da)

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Lan hori egiteko sei formatu ezberdin ditu aukeran, horietako batean antolakuntzatik proposatu diren hiru gaietako bat jorratu beharko du:

LANA EGITEKO GAIAK (2020)



EUSKAL EMAKUME SORTZAILEAK



NATURA PLASTIFIKATUA



**MUGAK GAINDITUZ,
INTEGRAZIORA BIDEAN**

“Sortzeko ahalmena, buru lanak sortzekoa bereziki”. Edonor izan daiteke sortzaile esparru ezberdinetan edo sormena piztu beste batengan.... Ezagutzen al duzu emakume sortzailerik euskal herrian? Gure erreferenteen artean ba al daude abeslariak, idazleak, antzerkilariak...? Komunikabideek denbora berdina eskaintzen diete emakume sortzaileei? Zeintzuk dira zure erreferenteak?

“...azken 10 urteetan, gizateriaren historia guztian baino plastiko gehiago produzitu dugu...” hauek dira Greenpeace erakundeak uzten dizkigun datuetako batzuk.

Plastikoaren erabilera oso barneratuta daukagu eta gure egunerokotasunean bidelagun bilakatu da: arropa, ontziak, etxeko tresnak, etab.. 1950ko hamarkadatik mundu osoan sortu ditugun 6'3000 milioi plastiko tonatik, %9 bakarrik birziklatu dugu, %12 erre ditugu, eta gainontzeko %79 zabortegietan edo naturan botata dago. Lortuko dugu plastikoaren ekoizpena murriztea? Ze neurri hartu behar ditugu horretarako? Badakizu zenbat plastiko kontsumitzen den zure herrialdean?







Integrazioa, norbanako, multzo, gauzak batzearen, sartzearen, parte izatea sustatzearen akzio edo jarrera moduan definitu dezakegu. Integratzaileak gara? Gure baldintza eroso berdinetan ez daudenak horietara heltzeko bultzada ematen diegu? Ze muga fisiko edo psikologiko aurkitu daitezke integrazioaren bidean? Gizarteko zein talde identifikatu ditzakezu egoera horretan?

- a) Euskal emakume sortzaile baten lanaren retrospektiba.
- b) Nire herriko/auzoko emakume sortzaileak.
- c) Emakume batek konposatutako abesti baten bertsioa.

- a) Nire herrian kontsumitzen den plastikoaren datu bilketa. Plastiko hori berrerabili egiten da?
- b) Plastikorik gabeko etxerako erosketa baten adibidea.
- c) Erabilitako plastikoa berrerabiltzeko edota ordezkatzeko aukerak.

- a) Pertsona migratzaileen integratzearen lanean aritzen den elkartearen aurkezpena.
- b) Zer diote aniztasun funtzionala daukaten pertsonen integratzeari buruz?
- c) Egun bat egoera ezberdinean dagoen pertsona baten azalean.

LANEN FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

 HISTORIKOA	 LITERARIOA	 IKUS-ENTZUNEZKOA	 MUSIKALA	 PLASTIKOA	 SORMEN DIGITALA
1.TESTUA	1.TESTUA	1.BIDEOA	1.AUDIOA	1.ARTELANA	1. GARATUTAKO LANA
<ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 5-10 orrialde (+bibliografia APA +portada +aurkibide) - Anexorik ez - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 	<ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: Olerkia: 3 orrialde Prosa: 5-10 orrialde (+portada) - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte: 1,5 	<ul style="list-style-type: none"> - Iraupena: 2-5 minutu - Generoa: dokumental edo fikzioa - Formatua: mp4 edo wmv - Artxiboaren izena: abizena+izena+obra 	<ul style="list-style-type: none"> - Iraupena: 2-8 min - Formatua: MP3 - Artxiboaren izena: abizena+izena+obra 	<ul style="list-style-type: none"> - Tamaina: 50x70x20 - Materiala/teknika: Askea <p>GOGORATU! Lan plastikoaren kasuan, artelan originala postaz bidali beharko duzu hurrengo helbidera:</p> <p>EuskarAbentura Elkarte Errotatxu industrialdea z.g (getxogaso) 48993 Getxo (Bizkaia)</p>	<ul style="list-style-type: none"> 2 aukera: <ul style="list-style-type: none"> • ZIP batean bidali garatutako lana osatzen duten fitxategiak • Lana ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali.
		2.AZALPEN TESTUA	2.AZALPEN TESTUA	3.AZALPEN TESTUA	2.AZALPEN TESTUA
		<ul style="list-style-type: none"> - Edukia: Ekoizpen txostena: <ul style="list-style-type: none"> • gidoia • eskaleta • storyboard-a *Dokumentu horiek baliatu ezean, 2-3 orrialdeko idatzia ekoizpen prozesua azalduz 	<ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 	<ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 	<ul style="list-style-type: none"> - Luzeera: 2-3 orrialde (+ portada) - Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena. - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5
				3.OBRAREN ARGAZKIA	
				<ul style="list-style-type: none"> - Formatua: JPEG/PDF/PNG 	

EGUTEGIA

Abenduak 5 - Martxoak 15	Izen-emate epea: Proiektu eta motibazio gutunak bidali
Apirilak 15	Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean
Apirilak 15 – Apirilak 29	Behin-behineko hautatuek eskatuko zaien DOKUMENTAZIOA eta BERMEAREN ZIURTAGIRIA bidali beharko dituzte izenemate@euskarabentura.eus helbidera. (Info+ Izen-ematea burutzean)
Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaie, hurrenkeran. Kasu horietan:	
Apirilak 29 – Maiatzak 13	Itxaron zerrendan zeuden eta plaza eskaini zaien gazteek eskatuko zaien DOKUMENTAZIOA eta BERMEAREN ZIURTAGIRIA bidali beharko dituzte izenemate@euskarabentura.eus helbidera. (Info+ Izen-ematea burutzean)